



OSASUN-ALARMARI BURUZKO IRIZPIDEAK ERTZAINTZAN ETA UDALTZAINGOETAN (10. Berrikusketa. 20/06/08. 3. Fasea)

1. MUGIKORTASUNA ETA JOAN-ETORRIAK	2. GARRAIOA ETA IBILGAILUEN OKUPAZIO-BALDINTZAK
<p data-bbox="199 284 448 311">1.1. Mugikortasuna.</p> <ul data-bbox="98 387 1120 805" style="list-style-type: none">• Mugigarritasun mugagabea, edozein jardueratarako, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen eta enklabeen artean (Villaverde eta Trebiñu).• EAetik kanpo, Estatuko lurralde - probintzietarako, edozein fasetan daudela ere, joan-etorriak egin ahal izango dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluan jasotako kausa justifikatuengatik. Arrazoi horiek honako hauek izango dira: osasun-arrazoiak, lan- edo enpresa-arrazoiak, familiaren bizilekura itzultzeakoak, adinekoak, mendekoak edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzea, ezinbesteko kausak edo premia-egoerak, edo antzeko beste edozein arrazoi. Nolanahi ere, edozein desplazamendutan, osasun-agintariek emandako jarraibideak eta gomendioak errespetatu beharko dira.• 70 urtetik gorako pertsonen eta arrisku-taldeek lehentasuna izango dute erabilera publikoko guneeetan, 10:00etatik 12:00ak arteko eta 19:00etatik 20:00ak arteko ordu tarteeetan. <p data-bbox="143 850 1012 877">1.2. Erabilera publikoko espazioetan maskarak erabiltzeko betebeharra.</p> <p data-bbox="143 917 1120 976">Sudurra eta ahoa estaltzen dituzten maskarak erabiltzea, ahal dela higienikoak eta kirurgikoak, sei (6) urtetik gorako pertsonentzat.</p> <p data-bbox="143 981 658 1008">Pantaila babesleak ez dira maskaratzat hartzen.</p> <p data-bbox="143 1013 1120 1109">Maskara, nahitaez erabili beharko da bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan, baldin eta ezinezkoa bada pertsonen arteko segurtasun-tartea gutxienez bi (2) metrokoa izatea.</p> <p data-bbox="143 1114 1120 1369">Ez zaie esijitzen, arnasketa zailtasunen bat duten pertsonen, osasun-arrazoi justifikatuengatik maskara erabiltzea kontraindikaturik daudakenei, ez-ta desgaitasun-egoeragatik edo mendekotasun-egoeragatik kontraindikaturik daudakenei ere, edo maskararen erabilerarekin kontraesanekoak diren portaerak izan ditzazketen pertsonen; eta ez da maskara erabiltzea eskatuko bateraezinak diren jarduerak egiterakoan ere (adibidez, elikagaiak eta edariak hartzea, korrika egitea eta txirringularitza egitea, etab.); ez-ta ezinbesteko arrazoiengatik edo premia-egoeragatik, maskara erabiltzea ezinezkoa denean ere.</p>	<p data-bbox="1193 284 1361 311">2.1. Garraioa.</p> <ul data-bbox="1144 387 2163 678" style="list-style-type: none">• Bidaiarien lurreko garraioan, trenez edo errepidez egiten denean, eta garraio hori erabat EAren lurralde-eremuan egiten denean, maiztasunak eta edukierak %-ko 100ean berreskuratu ahal izango dira, eta nahitaezkoa izango da ibilbide osoan maskara erabiltzea, pertsonen beren artean gutxienez 2 metroko distantzia fisikoa mantentzen saiatuz.• Motozikletak, ziklomotorrak eta L kategoriako ibilgailuak: bi (2) bidaiari doazenean, derrigorrezkoa izango da maskara edo kasko integrala erabiltzea, bidaiariak etxe berean bizi ez direnean; gainera eskularruak eraman beharko dituzte. Motozikletetan, babes-eskularruak onartzen dira.



OSASUN-ALARMARI BURUZKO IRIZPIDEAK ERTZAINTZAN ETA UDALTZAINGOETAN (10. Berrikusketa. 20/06/08. 3. Fasea)

3. MERKATARITZA-, HEZKUNTZA-, GIZARTE- EDO ANTZEKO JARDUERAK	4. AISIA, KIROLA ETA KULTURA-JARDUERAK
<p>3.1. Merkataritza- eta gizarte- jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familia- eta gizarte-bilerak: 20 pertsona gehienez. Etxebizitzetan, lokal pribatuetan edo espazio irekietan. Pertsonen arteko gutxienezko distantzia 2 metrokoa izango da. • Saltokiak eta merkataritza-guneak: % 60ko edukiera, eremu komunak eta jolas-espazioak barne. • Merkatuak, nekazaritza-azokak eta azoka txikiak: % 60ko gehieneko edukiera. Udalek salmenta-postuen arteko aldeak eta merkatu-eremua mugatzeko baldintzak ezarri beharko dituzte, langileen, bezeroen eta oinezkoen arteko segurtasuna eta distantzia bermatzeko. • Tabernak, jatetxeak, elkarte gastronomikoak eta txokoak: edukiera-muga gainditu gabe, 2 metroko distantzia gordez barruko eta terrazetako mahaien artean. Barrako zerbitzua baimentzen da, gutxienez 2 metroko tartea utziz bezeroen edo bezero-taldean artean. • Hotelak, ostatu turistikoak eta kanpinak: % 60ko edukiera, eremu komunetan babes-arauak eta pertsonen arteko 2 metroko gutxienezko distantzia fisikoa errespetatuz. • Kasinoak, joko-establezimenduak, jolas-aretoak eta apustu-lokalak: %50eko edukiera mugatua, makinaren artean 2 metroko tartea utzita. • Gaueko aisialdiko diskotekak eta tabernak. Ezin dira ireki. • Hileta-beilatokiak, zeremonia zibilak eta erlijiosoak: 50 pertsona aire zabalean eta 25 pertsona espazio itxietan. • Kultu-lekuak: edukieraren % 75a. • Ezkontza-zeremoniak: edukieraren % 75a gehienez (espazio irekietan edo itxietan). Gehienez 150 pertsona aire zabalean edo 75 espazio itxietan. • Kongresuak, topaketak, negozio-bilerak, hitzaldiak eta ekitaldiak: 80 parte-hartzaile gehienez. • Hautaketa-, prestakuntza- edo hezkuntza-prozesuekin lotutako azterketak eta probak egiteko feria-esparruak: espazio diafanoetan eremu edo areto bakoitzerako, gehienez ere, % 60ko edukiera, pertsonen arteko babes-arauak eta gutxienez 2 metroko distantzia fisikoa errespetatuz. <p>3.2. Kontziliazioa eta aisialdiko jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 0 eta 3 urte bitarteko haurtzaindegia eta haur-eskolak: edukieraren % 60ko muga. • Haur eta gazteentzako eguneko aisialdi-jarduerak: edukieraren % 60a eta, gehienez, 80 pertsona barruko espazioetan, eta % 60 edukiera eta 200 pertsona gehienez espazio irekietan (begiraleak barne). Gehienez ere 15 pertsona taldekako jardueretan, begiraleak barne. 	<p>4.1. Hondartzak: Aisialdiko bainuak baimentzen dira. Eguzkia modu estatikoan hartzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gomendioak eta irizpideak hartuko dira aintzat, bai eta hondartza edo aretza antolatze arduraren duen udalerrin bakoitzak ezarritako araudia ere.</p> <p>Objektu pertsonalak, esku-oihalak, etzaulkiak eta antzeko elementuak beste erabilizailerik batzuekiko bi (2) metroko segurtasun-perimetroa bermatzeko moduan kokatuko dira, elkarrekin bizi diren bainularien kasuan izan ezik.</p> <p>Udalek mugak ezarri ahal izango dituzte hondartzetarako sarbidean, edukieran, aparkalekuan eta beste erabilera-murrizketa batzuetan.</p> <p>4.2. Berdeguneetan kokatutako aisialdi- eta atsedene-guneak, erretegiak, parrillak eta mahaiak dituzten lekuak: Administrazio eskudunak ezarritako sarbide-mugak, edukiera eta horrelako instalazioetarako beste erabilera-murrizketa batzuk, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako gomendioen eta irizpideen arabera.</p> <p>4.3. Liburutegiak: Maileguak egiteko, irakurtzeko eta ikasteko, edukieraren % 60a errespetatuz.</p> <p>4.4. Museok eta erakusketa aretoak: edukieraren % 60a.</p> <p>4.5. Zinetokiak, antzokiak, auditorioak, karpadun zirkuak eta kultur ikuskizunetara bideratutako establezimenduak: butaka aurrez izendatua eta % 60ko aforoa.</p> <p>4.6. Kultur jarduerak leku itxietan: % 60ko edukiera, eta gehienez 80 pertsona, butaka alde aurretik izendatua.</p> <p>4.7. Ikuskizun eta ekitaldia aire librean: % 60ko aforoa, gehienez ere 1.000 pertsona, alde aurretik izendatutako eserlekua eta bi (2) metroko aldearekin.</p> <p>4.8. Turismo aktiboa eta natura eta jarduera fisikoa: 30 pertsona gehienez, eta pertsonen arteko 2 metroko distantzia fisikoa errespetatuz.</p> <p>4.9. Kirol-instalazioak, igerilekuak barne: % 60ko edukiera. Aldagelak eta dutxak erabil daitezke.</p> <p>4.10. Kirolarien arteko elkarrekintzarekin, taldeko entrenamenduak egin daitezke arrauneko, banku finkoko eta pilotako kirol-modalitateetan, eta disziplina ezberdinetan.</p>